

Arabako sagardo denboraldia hasi da!



ITURRIETA SAGARDOTEGIA

Bº Arraga, 2 / Aramaio
 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 info@iturrieta.eus
 www.iturrieta.eus

euskal sagardoa
 Sagar natural
 del País Vasco

ENEEK

Servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia

945 244 852-657 736 599 - ASKARTZA-TREBIÑU

Kuartango SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatzu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683

TXOTX EGIN!!

*Arabak,
 arabako sagardoa!*

alea

355
23/02/03



EDURNE AZKARATE
"APUSTU AUSARTA EGIN DU PAULEK"

Protagonista

"Mugarri bada 'Irati', izan dadila film handiak egiten jarraitzeko"

EDURNE AZKARATE AKTOREA

Aurten euskal zinemak izango duen estreinaldi garrantzitsuenetarikoan protagonista da Edurne Azkarate arabarra. Besteak beste, 'Zaldi urdina' antzezlanean edo 'Aulki jokoa' telebista saioan ibili eta gero, basoan bizi den pertsonaia misteriotsuaz hitz egiteko hitzordua egin du ALEArekin, Gasteizko Baratza aretoan.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkia: **Mikel Buruaga**.

Aurrez antzerkian eta telebistan trebatuta, lehenengo esperientzia du pantaila handian Edurne Azkaratek (Oion, 1993). Ekoizpen handi batekin dator, gainera. Zinema aretoetara otsailaren 24an helduko den *Irati*

filmeko protagonista da, Paul Urkijo zuzendariaren mundu fantastikora barneratuko gaituen pertsonaia "basati eta enigmatikoa".

Atzera kontaketa hasi da. Hiru aste baino ez estreinaldirako. Nola zaude?

Gogotsu, urduri ere bai, baina batez ere gogotsu. Luze egiten ari da...

Lehendabiziko film luzea, eta protagonista. Ez al du bertigorik ematen?

Bai, ematen du, ez dakidalako zer gertatuko den...

Halere, dagoeneko izan dira arrasto batzuk, estreinaldia bera Sitgesen, jaialdi batzuk, orain Goya sariak, beroketa nolabait egiten ari gara, baina bertigoa ematen du bai.

Sitgesen ikusi zenuen lehen aldiz zure burua pantaila handian?

Pantaila handian bai, aurretik ez zen lantaldeko emanaldirik egin, gero bai. Lehenengo aldiz han

ikusiko nuela pentsatzen nuen, eta halako batean, pare bat egun lehenago, Paulek idatzi zidan eta *link* bat bidali zidan, aker beldurgarria, Sitgesen estreinatu aurretik elkarriketa ugari eman behar genituelako, eta pelikulari buruz hitz egin behar genuelako... Ordenagailu pantailan ikusi nuen, oso urduri. Baina egia da pantaila handiko pelikula bat dela, gauza gehiago ikusi izan ditut handian ikusi dudanean, batez ere Paulen izaki misteriotsu kamuffatu horiek.

Zer sentsazio izan zenuen pelikulan zure burua ikustean?

Bueno, konforme. Uste dut neukan beldurarentzako dexente lasaitu nintzela. Gero bizipenak nahasten dira... hau jakin izango banu edo beste hau egin izan banu, edo nola zeuden egunean bertan... Dagoeneko askotan ikusi dut pelikula, Paulekin joan naizenean tourrak egitera, eta asumitu dut ez dudala *Irati* ikusiko ikusle modura. Pentsatzen nuen ohituko nintzela egunen batean, eta filma ikusiko nuela jendeak hartuko duen bezala, baina asumitu dut hori ez dela gertatuko. Hori ez nekien, eta oso kuriosoa da. Film bat egiten duzu berez film bat bezala sekula ikusiko ez duzuna.





Publikoak oraingoz ondo jaso du pelikula.

Bai, oso ondo. Ikusi beharko da Euskal Herriko publikoak ere zer dioen; maitekorrena izango da, baina baita kritikoa ere. Eta kuriositatea daukat Euskal Herriko kanpo ere nola hartzen duten, guk oso barneratuta daukagun iruditegi bat delako pelikularena, baina jakin nahi dut atzerrian zer esango duten edo nola hartuko duten, beste publiko mota batentzat zer esanahi duen.

Mugarri izateko hainbat osagai ditu 'Irtati'-k, ezta?

Fantasiako ekoizpen handi bat, lantalde arabarra, emakume bat protagonista, euskaraz...

Ez dira halako pelikula asko egin izan Euskal Herrian, eta mugarriz izango bada, izan dadila baita ere Paulek eta beste zuzendari batzuek jarrai dezaten halako pelikula handiak egiten. Alde horretatik, oso eskertzekoa eta aipatzekoa da Paulek egiten duen lana; bera oso beretik abiatzen da, esan dezagun *offzine* batetik, hori da gustatzen zaiona, eta beharbada fantasiako zinea ez da akademikoki baloratuena, baina egiten du. Badu Paulen ikuspegia, egile lana, eta, aldi berean, zerbait handia edo *mainstream* zinean enkatatu dezakeena. Osagai ugari ditu, eta uste dut oso ausarta dela berak egin duena.

Erresilientzia gaitasun handia dauka, proiektuari urteetan eusteko gaitasuna, eta pentsatzen dut *Irtati* ez zela horrela den bezala aterako Paul ez balitz egon hor tinko: euskara hautua mantentzen, zerbait handia egin nahian... Ez dakit ez daukagun ohiturarik edo Euskal Herrian ere zigortua izan den modu horretan handi



amestearen kontua, baina Paulek badauka hori, eta nik bertute bat bezala ikusten dut.

Nolakoa da Paul zuzendari moduan?

Super jatorra. Aktore denei opa diet Paulekin lan egitea.

Dena ondo zehaztuta eta itxita daraman zuzendaria da, ala bada ekarpenetarako tartarik?

Oso lotuta ekartzen du irudia, dena. Gainera berak *storyboard* guztiak eskuz marrazten ditu, eta oso argi dauka nahi duena. Baina gero, adibidez, Eneko -Sagardoi- eta biok proiektuan sartu ginenetik pila bat entzun gaitu, konfiantza asko jarri du gudan, eta edozein bilera, lan edo proposamen egiteko prest izan da. Oso ulerkorra da. Alde batetik, badakizu saiatu behar zarela ulertzen berari begiek dirdira egiten diotenean zer nahi duen eta zer mantendu behar den, eta, bestetik, beste esparru batzuetan, noiz negoziatu dezakezun, aktoreon erosotasunaren alde eta normalean istorioaren ulergarritasunaren alde, eta horretan oso txintxoa da Paul, oso langile umila da. Konfiantza jarri du gudan, eta ez nuen espero egia esan.

Errodaje lan gogorra izan zen, ezta? Fisikoki nekeza?

Bai, baina ahaztu zait, urtebete baino gehiago joan da. Fisikoki gogorra izan zen, baina hori ere niretzat psikologikoki kudeatzen da. Ikasi dezakezu, pertsonaia prestatu dezakezu... Orohar errodajeak oso gogorrak dira, egunak oso luzeak dira, eta horri gehitu bereziki gogorrak diren egunak, baina hori psikologikoki kudeatzen dela uste dut. Eta zaintza handia egon da ekipoa,



"ERRESILIENTZIA GAITASUN HANDIA DU PAULEK, PROIEKTUARI URTEETAN EUSTEKO GAITASUNA"

"ASUMITU DUT 'IRATI' EZ DUDALA INOIZ IKUSIKO IKUSLE MODURA, JENDEAK HARTUKO DUEN MODURA"

"GOGOTSU NAGO EUSKARAREN INGURUKO EZTABIDARAKO; INTERESGARRIA IZAN DAITEKE"



talde izaera lortu du. Uste dut gogorrago izango zela psikologikoki gaizki egon izan bagina, ez genukeela beharbada aguantatuko Paulek eskatzen duena. Berak artisaun ikuspegia dauka, pelikulako departamentu guztietan dago artisaun asko; eta zuzendaritzan artisaun lanak esan nahi du kromari uko egin eta berak hain ondo ezagutzen dituen Euskal Herriko txoko horietara joatea, hamarnaka pertsona, laua zapaldu gabe, hamabi ordu, ahuntzak bezala mendian, eta hala ere gustora lan egitea.

Nolakoa izan da euskararen lanaketa? VIII. mendeko pertsonaien ahotik euskara...

Oso interesgarria izan da. Gorka Lazkano eduki genuen euskara departamentu *unipersonal* batean, baina hilabete batzuk lehenago hasi ginen lantzen, Gorka, Paul, Eneko eta laurok, batez ere. Gero guk hautu hauek pertsonaierara eramateko lana egin dugu; elkarrizketa bat lagunduta, mintzapraktika batzuk egin ditugu, eta oso interesgarria izan da euskara hori lantzea. Pertsonaia asko dagoenez bateratasun bat lortzea zaila zen, edo hori zen galdera; iritsiko al gara leku komun batera denok? Ez dakit zenbat pertsonaia dagoen, adin oso desberdinetako jendea, eta pelikulak berak iragana, oraina eta geroa ekartzen ditu. Azkenean, uste dut euskara batua izan dela oinarria, eta gero Gorkak bere ikerketarekin eta egin duen lanarekin koloretzatu egin du: doinuekin, prosodia jakin batekin, hautu batzuk proposatuta (bustidurak bai ala ez, hemen bai ala ez, hasperena bai ala ez...), eta jolas bat bilakatu



Baratza aretoan izan da Edurne Azkarate. MIKEL BURUAGA

da. Berak asko zaindu zuen, esate baterako, latinetik eratorritako hitzak bakarrik pertsonaia kristauek esatea, paganoek beste era batera esango zuten... Hori guztia zaintzen egon da Gorka, eta uste dut hori ere badela proiektua errespetatzeko beste modu bat.

Badakizu arin pizten direla euskararen inguruko eztabaidak...

Bai, eta gogotsu nago eztabaida horretarako. Agian kristoren labankadak sartzen badizkigute ez, baina debate polit bat sortzen baldin bada... Uste dut gainera euskaldunok filologo txiki bat daukagula barruan, eta jendeari emango diola gogoa honi buruz hitz egiteko. Hori interesgarria izan daiteke.

Batik bat, antzerkian aritu zara orain arte. Alde handirik nabaritu duzu lanean?

Bi lengoaia desberdin dira, baina oraindik deskubritzen nabil, oraindik ez dut egin bi zerrenda zer erabili non jakiteko. Baina badaude helduleku batzuk, eta zubi asko dago. Izan daiteke kamarak daukan irisgarritasun horrekin gauza txikiagoak landu ahal izatea, eta hori plazerez hartu dut, pote txikiagoetan sartzeari sentipenak, iritziak, pentsamenduak... Hori kamararekin lan egiteko modu bat da, oraindik gehiegi landu ez nuena, eta oso plazergarria iruditu zait.

Antzerkiak, bestalde, asko lagundu dit *Iratín*, berez nire pertsonaia oso fisikoa delako. Ez da pelikula intimista bat, oihanari buruzko pelikula bat da, zabalra, eta nire pertsonaia ere halakoa da; zortea izan dut gauza asko pasatzen zaizkiolako eta egoera oso desberdinetatik pasatzen delako, eta horretarako antzerkiak asko lagundu dit.

Euskal zinemaren industria barrutik ezagututa, nola ikusten duzu? Kanpotik, loralditxo bat dagoela eman dezake. Paul Urkijo, Aitor Arregi eta Jon Garaño, Mikel Gurrea, Esti Urresola...

Orain badago oso beharrezkoa den sentsazio positibo bat, eta, aldi berean, industrian lan egiten dutenei galdetzen badiezu agian bekainak igo eta "zer industria?" galdetuko dizute, "lau gara, betikoak". Kontuan izan behar da zenbat ekoizpen egiten diren, horietako zenbat euskaraz, oso gutxi direnak, eta zenbat elikatu dezakegun ikus-entzunezko hori. Demonstratu dugu aukera badagoela, jende pila bat dagoela honetan, profesional on ugari, harrobi eta gogoa ere badagoela, eta Araban gertutik ikusi dugu, desertu bat izatetik bat-batean zenbait ekoizpen atera dira. Beraz, egon badago, baina oraindik barrutik bultzada behar du.

Taulara etorrira, 'Zaldi urdina' lanean ere parte hartu zenuen. Hiru konpainia eta zazpi aktore tartean.

Euskal Herri mailan eta euskarazko antzerkian handienetariko bat. Sekulako bidea egin dute -Artedrama, Axut eta Dejabu konpainiak-, eta besteontzako bidea ireki ere bai. Publikoa finkatu eta mantendu dute, oso zaila den gauza bat. Eta hor erronka bat dugu, ikusi beharko dugu gure lanekin, bakoitza bere ibilbidearekin, nola ahal ditugun elikatu beste antzezlan batzuk guk sortzen dugun publikoarekin; ez daitezela bilakatu gauza zehatz baten publiko, baizik eta euskal antzerkiaren publiko.

Formol-ekin 'Album' eta Metrokoadroarekin 'Zeozertan dabil baina ez dakit zertan' lanak dituzu taulan orain. Lan modu oso desberdinak izan dira?

Denek dute zerbaite komuna. Denak abiatzen dira bilaketa batetik, adibidez, testurik gabe ikerketa eszenikoaren bitartez sortzen hasten dira.

Albumen, adibidez, ez nago oholtzan eta beste lan bat izan da erabat; oso interesgarria izan da, asko gustatu zait hartu-eman asko nabaritu dudalako eszena eta kanpoaldearen artean. Eta kanpoan egotea asko gustatu zait, eta beraiek egiten zutenaren bitartez konposatzea. *Zeozertan dabil*

baina ez dakit zertan eta *Zaldi urdina* lanetan, berriz, ni beste kideekin egon naiz atek nola desblokeatu daitezkeen pentsatzen, eta beste baten papera izan da hori guztia harilkatzea, esanahiak topatzea. Proiektu bakoitza bakarra da, baina batetik bestera beti eramaten dira gauzak. **Nerea Torrijosen 'Influencer' lanean ere ikusi zaitez, sare sozialen inguruko beste gogoeta bat egiten duen film laburrean. Nolako harremana duzu zuk sare sozialekin? Badakit Instagram zalea zarela...**

Konfinamenduan egin nuen asperduraz, eta orain Instagrameko biztanle bat naiz, erroldatua. Saiatzen naiz harreman osasungarri bat mantentzen. Lanerako tresna moduan ere asko eman dit; adibidez, Formol-ekin komunitate bat sortu dugu, agian euskal antzerkian jarraitzaile gehien daukan kontua da, eta sentitzen dugu babesten gaituela, eta horren bitartez ere beroa sentitzen da eta zabaldu ditzakezu gauzak. Baina Instagram edukitzeak ez zaitu masa komunikazio bat bilakatzen, ez da sareetan zaudelako edonora iritsi zaitezkeela, hor ere badaude mugak eta harresiak. Laburbilduz: ezer igotzen ez dudan egunak dira ziur aski hobekien pasatu ditudan egunak. ■■■

ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

ERAKUSKETAK

.Jutta Koether. Black Place

.Iván Zuluetaaren asaldura

.Rafael Lafuente
Konposaketak

.Zeru bat, hamaika bide.

Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian
AZKEN EGUNAK

JARDUERAK

.Hitzaldia: Museoaren etorkizunak. Filpa Ramos
2023.02.08

.Euskal arte garaikidearean ikastaroa
HASIERA: 2023.02.07

.Zinema feministaren historiak

Viagem ao sol, Ansgar Schaefer, Susana de Sousa Dias
2023.02.05

.Filmetegiaren zikloa. Zinema eta zientzia II
OSTEGUNERO

.LORATEGItik abiatuta
Bisita gidatuen programa
ASTEAZKENERO ETA IGANDERO

www.artium.eus